



UGAR DE ENCUENTRO

EDUARDO CHILIDA DURANTE LA REALIZACIÓN DE "ABESTI GOGORRA V"
EN LA CANTERA DE PORRIÑO. 1965

AURKIBIDEA

Aurkezepena_05

Programazioa_10

Erakundeen testuak_24

Miquel Iceta, Espainiako Kultura eta Kirol ministroa

Bingen Zupiria, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza

Politikako sailburua

Goizane Álvarez andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko

Kultura, Lankidetzatza, Gazteria eta Kirol Departamentuko

diputatua

Eneko Goia, Donostiako alkatea

Xabier Lertxundi, Hernaniko alkatea


Eric Gálvez, Legazpiko alkatea

Biografia_31

Kronologia_35

Informazio praktikoa_36

Eduardo Chillida - Pilar Belzunce Fundazioak, *Eduardo Chillida 100 urte* programazioa aurkeztu du, artistaren jaiotzaren lehen mendeurrena ospatzeko



EDUARDO CHILLIDA "HAIZEAREN ORRAZIA XV"REN ALBOAN. ARGAZKIA:
EDUARDO CHILLIDA ARTXIBOA

Datorren urtarilaren 10ean Eduardo Chillida artista eta eskultore donostiarraren jaiotzaren lehen mendeurrena beteko da. Eduardo Chillida - Pilar Belzunce Fundazioak, bere obra nazioko eta nazioarteko agertokietan ezagutarazteko eta, bereziki, belaunaldi berriei zuzenduta, diziplina anitzeko programa oso bat prestatu du, besteak beste, erakusketak, argitalpenak, ikus-entzunezko proiektuak, hezkuntza-proiektuak eta akademikoez osaturik. Fundazioarentzat, mendeurrena aukera paregabea baita Chillidaren obraren ondarea ezagutarazteko.

"Programazio bizi honek Eduardo Chillidaren obra ospatzen eta zabaltzen du. Bere lana ez ezik, bere balioak, sentsibiltatea eta arte garaikidearen historiari egindako ekarpenak ezagutarazteko aukera da", adierazi du Luis Chillidak, eskultorearen seme, Eduardo Chillida - Pilar Belzunce Fundazioko presidente eta mendeurrena antolatzen duen batzordeko kideak, alboan Susana Chillida artista, zinemagile eta idazlearen alaba; Mikel Chillida, artistaren biloba eta Chillida Lekuko garapen zuzendaria; eta Mireia Massagué, Chillida Lekuko zuzendaria dituela.

Eduardo Chillida 100 urte. Topaleku lelopean, mendeurrenak artistaren obra publikoa balioesten du, Donostia, Madril, Valladolid, Palma, Bartzelona, Berlin, Frankfurt, Helsinki, Dallas edo Washington bezalako hirietako espazio publikoa gizartearentzako topaleku bihurtu duten 45 eskulturetan oinarrituta, Chillida “lekuen sortzaile” zela agerian utziz eta bere obraren balioak eredugarrituz.

Proiektu bizi gisa, mendeurrenak Chillidaren lana eta pentsamendua erdigunean izango dituzten proposamen, jarduera eta programa berriak txertatuko ditu, artistaren bi alderdi horiek eragin handia baidute gizartearen, bere balio unibertsalei eta artearen eta pentsamenduaren bidez gizarte-kohesioa sortzeko gaitasunari esker.

Eduardo Chillida: mundua besarkatu zuten euskal sustraiak

Programazio oparoaren aurrerapen gisa, mendeurrenak 2023ko martxoan egin zuen lehen pausua, “Topaleku IV” izeneko eskultura instalatuz Chillida Leku Museoan. Eskultura horrek 13 tonako pisua du eta Bilboko Arte Ederren Museoarena da, Bizkaiko museoaren handitze-lanak amaitu arte ikusi ahal izango da. Gainera, martxoan, Nerea argitaletxeak Eduardo Chillidaren eskultura-lanaren katalogo arrazoituaren laugarren liburukia argitaratu zuen, eta nazioarteko eremuan aldiz, Kunsthalle Krems-ek artistaren lehen erakusketa handia hartu zuen Austrian, apirilaren 29tik irailaren 24ra, 80 pieza baino gehiagorekin.

Programazioaren erdigunea 2024 eta 2025 urteen artean izango da, baina 2026ra arte luzatuko da, artistaren alderdi ezberdinetara hurbiltzen diren hainbat erakusketekin. Jakina denez, Chillida Lekuk, Eduardo Chillidak bere lana hartzeko sortu zuen lekurik intimo eta pertsonalenak, hainbat erakusketa eta jarduera izango ditu bere sortzailearen figura eta obra ospatzeko. Tokiko esparruan, San Telmo Museoak, Tabakalerak, Balentziaga Museoak, Bilboko Arte Ederren Museoak edo Artiumek bakarkako nahiz taldeko erakusketak hartuko dituzte datozen hilabeteetan.

Gainera, Chillida Lekuk Telefonica Bildumako piezez osatutako erakusketa antolatuko du, aurten ere 100 urtek gabe bete dituen telekomunikazio konpainiatik datozenak. Nazio mailan, Hauser & Wirth Menorcak, Bartzelonako MACBAk, La Pedrerak, Valladolideko Eskulturaren Museo Nazionalak edo Avileseko Kultur Etxeak bat egiten dute ospakizunarekin, artista donostiarraren ondarea jendeari hurbiltzea helburu duten hainbat erakusketekin.

Mendeurrena nazioarteko proiektu gisa jaio da, eta bere obraren zabalkundea herrialde ezberdinetako museo eta fundazioetan sustatzea du helburu, baita lehen mailako erakundeekin harremanetan jartzeko sarea indartzea ere, mendeurrenaz haratago ekimen bateratuak abian jartzeko. Hortaz, ospakizuna nazioarteko galeria eta museoetara zabalduko da, hala nola, Würth Künzelsau, The San Diego Museum of Art edo Txileko Unibertsitate Katolikoko Hedapen Zentroko Arte Galeriara.

Erakusketa horietako bakoitzak artistaren lanaren ezagutza elikatzen laguntzen du, sustraiak Euskal Herrian zituelarik, mundu osoko horizonteak besarkatu eta hauek gizartea elkartzeko leku paregabe bihurtu baizituen. Zalantzarik gabe, nazioarteko interes kulturala pizten duen ospakizun hau aukera bat da artistaren sorkuntza munduan zehar dauden kultura, belaunaldi eta jatorri askotara hurbiltzeko.

Chillida arteaz haratago

Aipatutakoaz gain, Arantxa Aguirre zuzendari eta gidoilaria Chillida Lekuren historia eta sorkuntzari buruzko dokumental bat filmatzen ari da, Eduardo Chillidaren lanik anbizioso, pertsonal eta intimoena dena. Eduardo Chillidak eremu akademikoan duen ezagutza indartzeko asmoz, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Maushausen arkitektu lantaldea ikastetxe, irakasle eta hezitzaileei zuzendutako unitate didaktiko bat lantzen ari da, eskultorearen lanari zeharka eta diziplina anitzen bidez heltzeko, artearen inguruan dituen testu, pentsamendu eta hausnarketetatik abiatuta.

Bestalde, programazioak musikarekin lotutako hainbat jarduera ditu; batetik, Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren eskutik, Chillidaren piezak ardatz hartuta hiru ibilbide diseinatu ditu; bestetik, Euskadiko Orkestrak, Antonio Lauzurikak sortutako Chillida-Elogios musika-pieza estreinatuko du; eta azkenik Bilboko Koru Elkartek, eskultore donostiarraren lana eta Johann Sebastian Bachen musika konbinatuko ditu, Chillidaren sorkuntzan erreferente etengabea dena. Azken finean, mendeurrena proiektu bizia da, eta munduan zehar aktibo dauden proposamen, jarduera eta programa berriak gehitzen joango dira.

Jakina, ospakizun hau une egokia da Chillidaren irudian eta bere obraren konplexutasunean sakontzeko. Hori dela eta, eta bere unibertso osoa ahalik eta publiko zabalenari hurbiltzeko asmoz, Eduardo Chillida 100 urtek argitalpen sorta bat prestatzen ari da, zalantzarik gabe aberastasun horretan lagunduko dutenak. Zentzu horretan, artista El Mapa de Chillida komikiaren protagonista bihurtu da, Norma Comics-ek argitaratua eta bere obra publikoa zeharkatzen duena.

Gainera, La Fábrica argitaletxea Chillidaren Escritos liburuaren edizio berezi batean ari da lanean, mendeurrenerako berritutako edizio bat izango dena; bertan biografia ilustratu bat eta Bernardo Atxagaren testu bat, artistaren monograma bat, Kutxa Fundazioaren Artegunea aretoko erakusketaren katalogo bat eta Zabalgata eta Chillida Leku baserriaren sorkuntzan barneratzen den Joaquín Montero arkitektoaren edizio bat aurkituko dira. Bestalde, Galaxia Gutenbergek eta HW Publishersek bat egin dute 2024an argitaratuko den Una vida para el arte proiektuan, non Susana Chillidak bere aita Eduardo Chillida eta bere ama Pilar Belzunceren oroitzapen kutunak biltzen ditu. Eduardo Chillida - Pilar Belzunce Fundazioak bultzatu du oroitzapen proiektu hau. Duela bi hamarkada sortu zen erakundea, eskultorearen obraren ezagutzan sakontzeko eta haren ikerketa eta zabalkundea

sustatzeko. Bertan, Kultura eta Kirol Ministerioak parte hartzen du, 2022ko martxoaren 3an Ministerio honek eta Eduardo Chillida - Pilar Belzunce Fundazioak kultura-proiektuetan lankidetzan aritzeko sinatutako asmo-protokoloaren zati gisa. Protokolo hori Ministerioaren eta Fundazioaren arteko lankidetza garatzeko abiapuntu gisa sinatu zen, Eduardo Chillidaren jaiotzaren mendeurrenaren esparruan.



EDUARDO CHILLIDA BERE INGEBORGEKO ESTUDIOAN. 1990. ARGAZKIA: JESÚS URIARTE

Gainera, efemeride honetan administrazio publikoek hartzen dute parte: Kultura eta Kirol Ministerioak, Ogasun Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Hernaniko Udalak, Donostiako Udalak, Legazpiko Udalak eta Madrilgo Udalak; baita kultura- eta gizarte-erakundeek, hala nola Kutxa Fundazioak, Euskadiko Orkestrak, Bilboko Koral Elkartek, Real Sociedad Fundazioak, La Fabrikak, A Contracorriente Filmsek, Fede Pacha & Cok, Lenbur Fundazioak, Loire Gestampek eta Tecnaliak; edota fundazioek eta museoek, adibidez, Telefonica Fundazioak, Kunsthalle Kremsek, Chillida Lekuk, Bilboko Arte Ederren Museoak, San Telmo Museoak, Tabakalerak, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa - ARTIUM Museoa, Cristóbal Balenciaga Museoa, Avilésako Kultur Etxea, Valladolideko Eskulturaren Museo Nazionalea, Txileko Unibertsitate Katolikoa, Museum Würth, Hauser & Wirth eta San Diego Museum of Art; eta azkenik EITB eta RTVE komunikabideak media partner gisa.



EDUARDO CHILLIDA TOPOS V ESKULTURAREKIN ZABALAGAN. ARGAZKIA: EDUARDO CHILLIDA ARTXIBOA

Programazioa

ERAKUSKETAK

Maeght Uibertsoa

Chillida Leku, Hernani

2.12.2023-14.04.2025

Abenduaren 2an, Chillida Lekuk *Maeght Unibertsoa* irekiko du, Eduardo Chillidaren lanen eta Aimé Maeght martxante historikoarekin eta bere emazte Margueritekin batera lan egin zuten artista batzuen arteko elkarrizketa proposatzen duen erakusketa. Hau honela, Georges Braque, Alexander Calder, Alberto Giacometti, Pablo Palazuelo, Julio González, Jean Arp, Barbara Hepworth, Antoni Tàpies, Joan Miró edo Marc Chagall-en pieza nabarmenak izango dira museoan. Fondation Marguerite et Aimé Maeght-ekin eta Eduardo Chillida - Pilar Belzunce Fundazioarekin batera antolatuta da, eta Saint-Paul-de-Vence-ko Maeght fundazioaren omenez sortua.

Eduardo Chillidak — Maeghtek bultzatutako sortzaile taldeko artista gazteenetako bat, galeristak “Mon petit” ezizena jarri ziona — konfiantzazko eta adiskidetzako harremana izan zuen, 30 urte inguru iraun zuena, Maeght hil zen arte. Zalantzarik gabe, galeristak behin betiko lagundu zuen Chillidaren irudia bultzatzen, artista, bohemio eta sortzaileak sarri joaten ziren espazio batean sorkuntza-une apartak partekatzeak aukera emanez.

Eskultoreak eta espazioak: Anthony Caro eta Eduardo Chillida

Museoa Würth, Künzelsau

17.12.2023 - 27.10.2024

Würth Museoak *Eskultoreak eta espazioak: Anthony Caro eta Eduardo Chillida* inauguratu du, 2024an 100 urte beteko zituzten bi artisten 70 eskultura eta mural inguru biltzen dituen erakusketa hain zuzen. Anthony Carok (1924-2013) eta Eduardo Chillidak (1924-2002) beren eskulturekin arrastoa utzi dute leku askotan, baina formatu txikiko piezak ere partekatzen dituzte, baita erabilitako materialen aniztasuna ere. Erakusketak bi eskultoreen arteko ezberdintasunak nabarmentzen ditu, baina baita antzekotasunak ere, eskulturaren formari, materialari eta gaiari dagokienez posible zen esparrua etengabe aztertu baitzuten.

Beren lanarekin, bai Carok bai Chillidak mugak gainditu zituzten, abstrakzio eskultorikoaren ordezkari gisa aintzatetsiak izan ziren eta eskultura modernoaren garapenean nabarmen lagundu zuten. Gainera, bere lanak mundu osoko bilduma eta museo ospetsuetan kokatuta daude eta aspalditik aberasten dute Würth Bilduma.

Eduardo Chillida. Espazioan eraikitzea

Avilesko Kultur Etxea

20.12.2023-3.03.2024

Eduardo Chillida. Espazioan eraikitzea, Alicia Vallinak komisariatutako erakusketa, 7 eskulturak eta 8 paperezko lanek osatzen dute, artistaren ekoizpen osoan zehar ibilbidea eginez. Aurreko mendeko 40ko eta 50eko hamarkadetan brontzez edo harriz egindako obretatik, burdinaz, alabastroz edo bere xanota-lur ospetsuez egindakoetatik igaroz, Avileseko Kultur Etxeak Lurra G-246 izeneko ale txikia erakutsiko du.

Erakusketan paperezko lanak ere badaude, hala nola tintaz egindako marrazkiak, 50eko hamarkadan eginak, bai eta 1990 eta 1992ko bi ale ere, lehen aipatutako materialei sokaren erabilera gehitzen zaienak. Erakusketa honek katalogo propioa izango du, eta Eduardo Chillidaren lana Asturiasko Avilés hirian erakusten den lehen aldia da.

Jesús Uriarte. Chillida lanean

Kutxa Fundazioaren Artegunea aretoa

15.03.2024-30.06.2024

Tabakaleran egoitza duen Kutxa Fundazioaren Artegunea Aretoak *Jesús Uriarte. Chillida lanean* erakusketa hartuko du, argazkilariak Eduardo Chillidarekin 20 urte baino gehiagoz izan zuen harreman profesionala eta pertsonala agerian uzten duena. Marrazki xumeenetatik hasi eta eskultura monumentaletaraino, Uriarteren argazkiek bere lan-prozesuaren alderdi intimo eta ezezagunak dokumentatu zituzten.

Jon Uriarte da erakusketaren komisarioa eta artista gipuzkoarraren ibilbidean funtsezkoak diren lau material hartzen ditu abiapuntutzat: papera, lurra, altzairua eta hormigoia. Jesus Uriarteren irudiek haietako bakoitzean inplikaturako espazioak, denborak eta pertsonak erakusten dituzte, bere adiskidetasunak eta denboran zehar izan zuten lankidetzak eskaintzen zuen hurbiltasunetik.

Eduardo Chillida. Gauzen espazioa

Txileko Unibertsitate Katolikoa, Pontifizearen Hedapen Zentroko Arte Galeria

19.03.2024-30.06.2024

Chillidaren lanak Txile bisitatu zuenetik 23 urte igaro direnean, Santiago de Chileko Unibertsitate Katolikoak eskultorearen lanak ekarri ditu berriro, bere lanaren beste irakurketa bat eskaintzeko eta bere mendeurrena ospatzeko. Erakusketa berri honetan grabitazioen hauskortasuna, eskuen serieen bidez perfekzioa bilatzea, liburuekiko grina eta bere obra publikoaren ikerketa, maketa eta dokumentazio aukeraketa aurrez aurre jartzen dira. Artelanen multzoak bisitariak Chillidaren obretan garatzen diren tesi funtsezkoetara hurbiltzen ditu, baita espazioak sortzeko eta materialak moldatzeko duen gaitasunera ere, tradizioak eman dien logika eskultoriko eta fisikotik haratago.

Chillida eta Balenciaga. Forma tolesten

Cristóbal Balenciaga Museoa

22.04.2024-9.01.2025

Eduardo Chillida (1924-2002) eta Cristóbal Balenciaga (1895-1972) lotura biografikoak, formalak eta filosofikoak partekatzen dituzte, nahiz eta beren bizitzak eta diziplina desberdinak elkarrengandik urrun egon.

Haien ibilbideak markatzen dituzten bi koordinadak diren Donostiaren eta Parisen artean, hainbat elkargune daude, hala nola, Juana Eguren, Pilar Belzunce edo Maeght senar-emazteen eta beren zirkulu sozial eta artistikoaren inguruan. Bere obrei erreparatuz, beste elkargune batzuk igar daitezke: espazioari buruzko azterketak, geometria inguratzaileak, gainjartzeak, formaren mendeko materiaren tolesdura, eta zorrotasun, harmonia eta proportzioaren filosofia komuna.

1990ean Eduardo Chillida "Balenciagari Omenaldia" eskultura sortu zuen miresten dituen artista eta pentsalariei eskainitako sail baten barruan. Balenciagaren lanaren interpretazioa agerian uzten duen lan horretatik abiatuta, "Chillida eta Balenciaga. Forma tolesten" lanak bi sortzaileen 42 lanen arteko topaketa formala proposatzen du.

Cristóbal Balenciaga museoak antolatuta, Eduardo Chillida - Pilar Belzunce Fundazioaren eta beste bilduma pribatu batzuen laguntza izan du erakusketak, eta Getarian irekiko da 2024ko martxoaren 22tik aurrera.

Eduardo Chillidaren 100 urte Telefonica Bildumarekin**Chillida Leku, Hernani****15.05.2024-13.10.2024**

Erakusketak *Eduardo Chillidaren 100 urte Telefonica Bildumarekin* biltzen du, Chillida Lekun Telefonicarean ondarearen parte diren eskultorearen pieza sorta bat aurkeztuz. Telekomunikazio enpresa hau, 80. hamarkadan zehar, aitzindari izan zen bildumagintza korporatiboaren arloan. Konpainiak gure herriko artearekin eta kulturarekin duen konpromiso horri esker, Eduardo Chillida artistareneskultura eta paperezko obra multzo handi bat bildu ahal izan zuen.

Burdinazko eta zurezko, lurrezko, alabastrozko eta altzairuzko piezak osatu berri den Telefonicarean Arte Bilduma handitu zuten, Picasso, Juan Gris, Tàpies edota Luis Fernándezen koadroekin batera. Testuinguru honetan, Eduardo Chillidaren eskulturek sendotasun eta garrantzi handia ematen diote Telefonica Bildumaren modernotasunaren diskurtsoari.

Eduardo Chillida**Valladolideko Eskultura Museoa****05.2025-09.2025**

Eskultura Museo Nazionalak bat egingo du Eduardo Chillidaren mendeurrenaren ospakizunarekin, 2025eko maiatza eta iraila bitartean egingo den aldi baterako erakusketarekin. Horrela, Valladoliden aurkitzen den Museo Nazional honen bidez, egile donostiarraren lana omenduko da. Chillidaren eskultura eta obra publiko gisa duen ikusmoldea izango dira erakusketaren ardatzak, eta gainera, museoaren hiru egoitzak dauden San Gregorioren Kateak kalean bertan erakusten den *Lo profundo es el aire* lanarekin lotuko dira.

Eskultura honekin, Chillidak omenaldia egiten zion Valladolideko Jorge Guillen poeta maiteari, eskultorearen hainbat lanetan izenburu gisa erabilitako "Haratago, sakona airea da" bertsoaren bidez. Erakusketa honek Chillidaren figurara eta eskultura-ekoizpenera hurbiltzeko aukera emango die bisitariei, eta, bereziki, artistak publikotasunarekin zuen konpromisora eta artea gutxi batzuentzat erreserbatua ez izateko zuen desirara, jendearen plazer eta gozamenerako sortua izatea nahi baitzuen.

Eduardo Chillida

Hauser & Wirth Menorca

05.2024-11.2024

Bere jaiotzaren mendeurrenean, Hauser & Wirth Menorcak Eduardo Chillidaren bakarkako erakusketa bat aurkeztuko du, XX. mendeko artista espainiar garrantzitsuenetako bat izan zena. Chillidak lotura estua zuen Menorcaekin, bertan lanegin zuen eta uda asko eman zituen familiarekin. Menorcako erakusketak artistaren praktika aitzindaria nabarmenduko du, obra publiko monumentalak, eskulturak, marrazkiak, collageak eta grabatuak barnebilduz. Burdina, altzairua, harria, alabastroa eta buztin xamota bezalako material ezberdinetan lan eginez, bere praktika inguruko naturan inspiratzen da eta existentziaren muinean bertan dauden indar organiko eta oinarritzoei omenaldia egiten die.

Eduardo Chillida eta bere garaiko arteak. Elkarrizketa bat (1950-1970)

San Telmo Museoa

8.06.2024-29.10.2024

Erakusketak Chillidaren sormen unibertsoa aurkezten du bere garaiko kultura artistikoaren esparru zabalean, bere lehen hamarkadetan zentratuz, 1950 eta 1970 bitartean, eskultoreak bere ideal estetikoak eta bere iruditegi plastikoa definitzen dituenean.

María Bolaños da erakusketaren komisarioa, eta ikusizko konexioen, lotura kontzeptualen eta paraleloko esplorazioen sarean sakontzen du. Sare horrek Chillida batu zuen, modu batera edo bestera, bere belaunaldiko artisten kezkekin, bere garaikideen praktikekin, nazioarteko eszenan agertzen diren balio eta joerekin, ikusizko arteen eta pentsamenduaren, dantzaren, argazkigintzaren, musikaren edo zinemaren arteko diziplina-elkarrizketetan oso emankorra den eszena batekin.

Erakusketak 30 museo eta bilduma baino gehiagoko ehun artelan baino gehiago biltzen ditu: eskulturak, argazkiak, margolanak, koreografiak, diseinua, dokumentu historikoak, partiturak eta filmak.

Garai horretako maisu handi ugari izan dira hautatuak: Alberto Giacometti, Paul Klee, Barbara Hepworth, Pablo Picasso, Stanley Kubrick, Germaine Richier, Joseph Beuys, Jean Dubuffet, David Smith, Robert Bresson, Merce Cunningham, Lygia Clark, Nestor Basterretxea, Julio González, Robert Motherwell, Marianne Gast, Cristóbal Balenciaga, Simon Hanta, María Paz Jiménez, Ángel Ferrant, Pierre Boulez, Jean-Luc Godard edo Aurelia Muñoz. Horiek guztiek, era batera edo bestera, Eduardo Chillidaren obra multzo handi batekin hitz egiten dute.

Topaketak egiteko lekua

Tabakalera

21.06.2024-6.10.2024

Erakusketa honek Eduardo Chillidaren lana praktika artistiko garaikidetik irakurtzea planteatzen du. Proiektu honetan, bere obrak, idazkiak eta argitaratutako elkarrizketak “lehengai” bihurtzen dira, hauetatik partekatu, hitz egin eta erlazionatzeko. Hala, hari nagusia arte-ekoizpen garaikidea duen elkarrizketa imajinatu horretatik abiatuta, espazio bat ezartzen da intuizioaren, tokiarekiko loturaren eta beste ezagutza-modu batzuen inguruko hausnarketa zabalagoak emateko.

Erakusketaren izenburuak esanahi bikoitza du. Batetik, Topalekuak serieari erreferentzia zuzena egiten dio, antzinako garbitegiak gogora ekartzen dituzten hormigoi esekizko eraikin handiak direnak. Aldi berean, Chillidak aipatzen duen “topaketaren” unea jasotzen du, gainerakoen gainetik ideia bat nabarmentzen zen unea definitzeko, intuizioa ziurtasun bihurtzen den unea, alegia.

Gonbidatutako sortzaileak, besteak beste, Elena Aitzkoa, Laia Estruch, Eduardo Chillida, Christian Salablanca edo JUFF Project, idatzietatik abiatzen dira, eta, beren jardunetik ekinez, Chillidak berak egiten zituen galderetan entzuten diren galderak planteatzen dizkigute, eta denboraz kanpoko eta belaunaldien arteko gaiei buruzko erantzunak proposatzen dituzte; aldi berean, “mundua ekoizteko” moduari buruzko gogoeta zabalagoak zabalduz.

CHILLIDA. Aplikatutako erabilerak

Artium Museoa

2024ko udazkena

Chillida. Aplikatutako erabilerak lanak Eduardo Chillida eskultorearen ikonoen ilustratzaile eta hainbat lankidetzaproiektutan bi dimentsiotako forma eta eta forjatzailearen alderdiak aurkezten ditu. Bai bere erakusketen esparruan, bai elkarte eta erakunde publiko zein pribatuen enkarguetatik abiatuta, Peio Agirrek komisariatutako erakusketak silueta txillidiarren unibertso hedatu eta errepikatua aztertzen du.

Zentzu horretan, *Chillida. Aplikatutako erabilerak* proiektuan, ikurren, logotipoen eta zigiluen diseinu ugariren bidez “aplikatutako” Chillida bat dagoela egiazta daiteke. Erakusketak forma abstraktuen izaera hori azpimarratzen du forma abstraktuak lautzen direnean eta zuzenean edo zeharka diseinu grafikoarekin, kartelismoarekin, ehungintzako arteekin, zeramikarekin edo bitxigintzarekin, produktu eratorriaren nozio objektiboarekin eta identitate korporatiboa delakoarekin harremanetan jartzen direnean.

Chillida-Ortega Muñoz

Bilboko Arte Ederren Museoa

2024-2024

Bilboko Arte Ederren Museoak Eduardo Chillidaren jaiotzaren mendeurrena ospatuko du bi zatitan. Alde batetik, museoak aldi baterako maileguan utzi zuen Topaketa lekua IV (1973), Chillida Lekun ikus daitekeen bere bildumako eskulturarik enblematikoenetakoa bat, Foster eta Uriartek proiektatutako museoaren handitzea burutu arte.

Bestetik, 2024ko udan, Javier González de Durana historialariak Chillidaren eta Godofredo Ortega Muñozen arteko analogia formal iradokitzaileekin aurrez aurreko erakusketa bat proposatuko du museoan, gogora ekarriz margolariaren bakarkako lehen erakusketa 1957an egin zela museoan, eta urtebete geroago Veneziako Biurtekoaren Eskulturaren Nazioarteko Sari Nagusia lortuko zuela Chillidak.

Eduardo Chillida: Konbergentzia

San Diegoko Arte Museoa

29.03.2025 - 01.09.2025

The San Diego Museum of Art will host a major Chillida exhibition featuring a variety of sculptures and works on paper. The exhibition, entitled *Eduardo Chillida: Convergence* is largely organised with loans from American museums, as well as from the Eduardo Chillida - Pilar Belzunce Foundation. In addition, to complete the exhibition, it will be accompanied by a publication with recent studies and an introductory essay.

MUSIKA

Chillida-Elogios filmaren estreinaldia Antonio Lauzurika

Euskadiko Orkestra

2024ko otsaila

Euskadiko Orkestrak musika-pieza bat sortu du Antonio Lauzurika euskal konpositoreari obra bat enkargatuz. Obra hau Euskadiko Orkestraren Denboraldiaren barruan estreinatuko da: otsailaren 15ean eta 16an Donostian (Kursaal), 19an Gasteizen (Antzoki Zaharra), 20an Iruñean (Baluarte) eta 21ean Bilbon (Euskalduna Jauregia).

Antonio Lauzurikaren hitzetan: "Chillidaren lanak iradokitzen didanaren zati bat pentagramei helarazteak oso desberdinak diruditen baina hainbeste ez diren bi munduren arteko elkarriketa ezartzea eskatzen du. Espazioa, muga, masa, eskala, grabitatea, azalera, dentsitatea edo testura bezalako kontzeptuak musikan ere agertzen diren ideiak dira, edo musikan isla metaforikoa izan dezaketenak. Gainera, Chillidak erabilitako materialekin (burdina, altzairua, papera, hormigoia, alabastroa, granitoa, egurra eta terrakota) izan duen harreman nagusiaz baliatu naiz, obra musikala lau zati edo mugimendu desberdinetan artikulatzeko.

"Laudorio" terminoa behin eta berriz agertzen da Chillidaren lanen obra edo zikloetan: Elogio del agua, Elogio del hierro, Elogio de la luz... Bada, titularrerako "CHILLIDA - ELOGIOS" terminoa hartu dut, mugimendu bakoitzean obra, kontzeptu edo material baten inguruan orbitatuz.

Chillida & Ciaccona. Soinuaren espazioa

Bilboko Koral Elkarte

2024

Johann Sebastian Bachen musika erreferente etengabea da Eduardo Chillidaren sorkuntzetan. Iñaki Alberdi akordeoi jotzailea eta Bilboko Koral Elkarte protagonista dituen proposamen musikala esperientzia paregabea da, eskultore donostiarraren obra eta Leipzigeke maisuaren musika uztartzen dituen. Era berean, Javier Quisilanten berrikuspen bat ere badu, akordeoi eta korurako Ciaccona hilezkorra egokitzeko, baita beste egile garaikide batzuen lanak ere, hala nola Sofia Gubaidulina eta Knut Nystedt. Kontzertua aukera paregabea da musika klasikoaz beste testuinguru batean gozatzeko, non Chillidaren lanak musikarekin bat egiten duen esperientzia zirrargarri bat sortzeko.

Musika ibilbideak

Musikene

2024

Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiak, bi ibilbide eskultoriko-musikal diseinatu ditu Eduardo Chillidaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko. Horietako bat maiatzean izango da, Chillida Lekun. Bertan, museoko hiru piezatan inspiratutako hiru konposizio biltzen dituen ibilbidea planteatzen dute. Bigarrena Donostian izango da, eta hiri horretarako Chillidaren obra publikoetan barrena ibilbide bat diseinatu dute, Haizearen Orrazia, Balerdiri Omenaldia eta Fleming Omenaldia lanetan oinarritutako hiru konposizioekin, Musikeneko ikasleek interpretatuko dituztenak. Jarduera hau urria eta azaroa bitartean izango da. Gainera, eskultorearen omenezko obra bat osatuko da eta Musikenen estreinatuko da Musikene Sinfoniettaren eskutik. Musikeneko auditorioan taularatuko da 2024ko abenduan.

Lankidetza estu horren ondorioz, datorren urtean, eta 2026ra arte, Musikeneko bi konposizio-ikasleek Creative Europek Portugalen bihotzean sortutako Landscape Together proiektuan parte hartuko dute, Chillida Lekuren partaidetzarekin.

ARTE ESZENIKOAK

Udako solistizioa

Dantza Kukai eta Hernaniko Udala

Chillida Leku, Hernani

21.06.2024

Chillida Lekun urtero ekainaren 21ean egiten den udako solstizioak edizio berezia izango du Hernaniko Udalarekin eta inguruko kultur eta gizarte eragileekin elkarlanean. Bertan, Kukai dantza konpainiak eta Jon Maya koreografoak parte hartuko dute sormen prozesua zuzentzen. Pieza honetarako, Eduardo Chillidaren obratik eta bere pentsamendutik abiatuko da Maya, Eduardo Chillidak bere obrarekin defendatu zituen giza balioak praktikara eramateko, hala nola elkarrikeria, tolerantzia, bakea edo anaitasuna. Belaunaldiz belaunaldiko eta zeharkako proiektu bat izateko helburuarekin, udako solstiziorako pieza parte-hartzailea izango da.

Eduardo Chillida oroitzeko ekitaldia

Victoria Eugenia

10.01.2024

Urtarrilaren 10ean, artistaren jaiotzaren 100. urteurrenarekin bat eginez, San Sebastian hiriak Eduardo Chillida gogoratu eta sentitu ahal izango du bere lanak artearekin eta publikoarekin sortu dituen bidegurutzeen bitartez.

ZINEA

***Ciento volando* de Arantxa Aguirre**

A Contracorriente Films eta Bixagu Entertainment

2024ko urria

Arantxa Aguirreraren *Ciento volando* dokumentalak, A Contracorriente Films eta Bixagu Entertainment ekoizleek, Chillida Leku bisitatzeko, sentitzeko eta bizitzeko esperientzia paregabea ikus-entzunezko hizkuntzara eramateko erronka hartzen du bere gain. Estreinaldia 2024ko udazkenerako aurreikusita dago, eta helburua da ehundurak, usainak, tenperaturak eta masa itzel eta betikoen pisu bera kolorearekin, argiarekin eta soinuarekin lotzea denbora-zati batean.

Chillida Leku, Eduardo Chillidak pentsatu eta Pilar Belzunce emaztearekin bilatu, aurkitu eta modelatu zuen espazioa, obra bakoitza finkatzeko, egiteko eta munduan bere lekua aurkitzeko pasabide gisa sortu zen. Denborarekin, museo bakar batetik haratago, Chillidaren betiko ondarea bizi den espiritu eta formarekin lotura estuena duen lekua izatera igaro da.

HEZKUNTZA

Unitate didaktikoa. Eduardo Chillida 100 utre

Maushaus

Maushaus arkitekto taldea Chillidari buruzko unitate didaktiko bat prestatzen ari da, artistaren obran eta pentsamenduan sakondu nahi duten ikastetxe, irakasle eta hezitzaileentzat. Dokumentu hau erreferentziazkoa izango da, eskultorearen lana zeharka eta diziplinatik haratago landuko duena, artearen inguruan eginiko Chillidaren idatzi, pentsaera eta hausnarketetaik abiatutik.

Artistaren biografiara hurbilketa bat izateaz gain, gida honek Chillidak artelanak egin ahal izateko behar izan zituen tresnak jorratuko ditu, ez soilik harraminta fisikoak, bere lana osatzen duten osagaiak ere, hala nola, hutsa eta materia, poesia, marrazketa edota aromak. Izan zituen ideia iturri nagusienak ere kontuan hartuko dira, Chillida musikan, naturan, filosofian edo zientzian inspiratu baitzen bere eskultura eta marrazkiei forma emateko.

Argitalpen honek irakasleei Chillidaren obra ulertzeko gakoak eskainiko dizkie, ikasleei hurbildu ahal izateko; baina gainera, ikasgeletan lantzeko ariketa praktikoak ere ekarriko ditu. Pixkanaka ikasleak Chillidaren unibertsoan sartzen joango dira, Haizearen Orrazia eta beste eskultura zein bilduma enblematiko eta internazionalenak ezagutuko dituzte. Gainera, ikuspegi desberdinetatik landu ahal izango da: artea, poesia, literatura, matematika, zientzia edo filosofia. Baita zeharkako gaiak ere, hala nola giza eskubideak edo natura.

ARGITALPENAK

Chillidaren mapa

Komikien araua

Norma Cómics argitaletxeak Chillidaren obra publikoari buruzko edizio bat argitaratu du. Komikiak 20 orrialde inguru izango ditu, Chillidaren lan publiko gehiagorekin, eta Espainiako mapa ilustratu bat, bi orrialdetan banatua, eskultura horien kokapena nabarmenduko duena. Hitzaurre batekin eta argazki eta testuekin osatutako gehigarri dokumental batekin aberastuko litzateke edukia.

La Fábrica

La Fábrica argitaletxea Eduardo Chillidaren edizio berezi bat prestatzen ari da, modu espezifikoan diseinatua ospakizunerako: artistari buruzko monografia bat, bere idazkien edizio bat biografia ilustratu batekin eta Bernardo Atxagaren testu bat baita Kutxa Fundazioaren Artegune aretoan aurkituko den *Jesus Uriarte*. *Chillida Lanean* erakusketaren katalogo bat eta azkenik Joaquín Montero arkitektoaren argitalpen bat Chillida Leku eta Zabalaga baserriaren sorkuntzari buruz.

Galaxia Gutenberg eta HW Publishers

Galaxia Gutenberg-ek eta HW Publishers-ek *Una vida para el arte* argitaratuko dute Susana Chillidak bere aita Eduardo Chillidarekin eta bere ama Pilar Belzuncerekin batera oroitzapen kutunak biltzen dituen liburukia.



ASKATASUNAREN ARKUA (1993), CHILLIDA LEKU. ARGAZKIA: MIKEL CHILLIDA.

Testu instituzionalak

Miquel Iceta, Espainiako Gobernuko Kultura eta Kirol ministroa

Kultura eta Kirol ministro naizen aldetik, plazer handia da niretzat Eduardo Chillidaren jaiotzaren mendeurrenaren ospakizunarekin bat egitea, bere belaunaldiko eskultorerik nabarmenetakoa baita. Duela urte eta erdi, Chillida Leku museoa bisitatzeko aukera izan nuen, eta berriro harritu ninduen artearen eta naturaren arteko elkarbizitza “natural” horrek. Eduardo Chillidaren eskuzabaltasuna eskertzekoa da, bere obrentzako etxe hori sortu izanagatik, non etorkizuneko belaunaldiek bere artea ezagutu eta esperimentatu ahal izango duten, zalantzarik gabe, espazio ezinhobe batean.

2022ko martxoaren 3an sinatu genuen asmo-protokoloa izan zen gaur aurkezten diren jardueren abiapuntua, legatuaren kontserbazioa eta hedapena bultzatzeko dena hain zuzen. Kultura eta Kirol Ministerioak honela Espainiako arte garaikidearekiko konpromisoa indartzen du estatuko eta nazioarteko zirkuituetan.

Eduardo Chillida: herri baten omenaldia

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburua

Mendeurrena konbentzio edo hitzarmen bat da; hitzartu dezagun bada gure garaietako euskal artista handienetako baten figura eta obra ospatzea. Mendeurrena data biribila da; antola dezagun ospakizun biribil bat. Eta egin dezagun denon artean. Mendeurrena herri omenaldia izan dadin: herri honek Eduardo Chillidaren arteari egiten dion aitortza.

Omenaldi kolektibo horren erreferente nagusia, zalantzarik gabe, Chillida-Leku izango da, artistak bere obrarentzat aukeratu eta modelatu zuen lekua, museo eta, aldi berean, artelan bat dena. Baina Chillida-Leku ez dago bakarrik ahalegin horretan: Euskadiko ia kultur ekipamendu guztiek antolatuko dituzte, nork bere programatik eta nortasunetik, ekitaldi, ekoizpen eta erakusketak, Chillidaren obra berriro bisitatzeko, hari buruz hausnartzeko, haren obratik abiatuta sortzeko. Horrela, mendeurrena aukera bikaina gertatu da Euskal Herriko museo eta ekipamenduen arteko lankidetzak eta koordinazioa indartzeko. Auzolanaren eraginez lortuko baita herri oso bat izatea artista baten lana gogoratzen eta omentzen duena. Herri hori Euskadi da, gu guztiok gara; eta artista ahaztezin hori, berriz, Eduardo Chillida Juantegi.

Goizane Álvarez, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatua

Jakitun gara bere lanaren aberastasun, konplexutasun eta aniztasunaz, bai eta hainbat diziplinatan inspirazio sakona izan zuela ere. Aurrean dugun erronka da bere unibertso artistiko eta intelektualaren zabaltasuna modu eraginkorrean jasotzea unitate didaktikoan.

Erreferentziazko dokumentua izango da, eta bertan Eduardo Chillidaren lana jorratuko da, arteari buruzko testuak, pentsamenduak eta hausnarketak abiapuntu hartuta. Baina, gainera, ziur gaude hezkuntza baliabide hauek gure ikasleen ezagutza aberastuko dutela, eta, beraz, gida hau tresna baliotsua izango dela hezitzaileentzat eta ikasleentzat.

Gidak ikuspegi transbertsal, transdiziplinar eta sakona emango du, Chillidak artearen munduan duen garrantzia aztertzeko eta bere lana testuinguru artistiko eta kulturalan kokatzeko.

Eduardo Chillidaren unibertsoa hainbat ikuspegitatik –arte, poesia, literatura, matematika, zientzia eta filosofia– eta gaitatik –giza eskubideak eta ingurumena– lantzen da”.

HAIZEA ORRAZTU ZUEN DONOSTIARRA

Eneko Goia Laso, Donostiako Alkatea

Datorren urtarrilaren hamarrean 100 urte beteko dira Eduardo Chillida Juantegui jaio zela. Zaragoza plazan bizi zen eta oso umetan, kontatzen zuen, denboralea zegoenean ez zen eskolara joaten. Itsasoa ikustera arrimatzen zen. Berak esan zuen ordurako ia, pentsatu gabe, itsasoko haizea orrazten hasia izango zela. Haizea orraztea, Artista bati bakarrik burura dakioke horrelako ideia.

Eduardo Chillidak berealdiko ondarea utzi digu Donostian bertan, Euskal Herrian eta mundu osoan. Eta berak gurekin jarraitzen du. Artista onak sekula ez dira joaten. Bere obrak, bere lan bakoitzak hitzegiten digu. Euskaraz askotan, berak aitortzen zuen moduan. Bere Besarkada, Hilarriak, Aitaren Etxeak, Gurutzeak, Askatasunaren ateak, Marrak, Topalekuk elkarriketara gonbidatzen gaituzte. Eduardoren Oyarak, oihartzunak indar handia izaten jarraitzen du eta jarraituko du.

Izan ere, berak natura, itsasoa, lurra, askatasuna, espiritualtasuna... oso gaurkoak diren gaiak jarri zizkigun begien aurrean. Gure izaera, nortasuna jarri zuen iruditan, hizkera eta hizkuntza berria asmatuz. Oso gaurkoak dira bere logo eta ikurrak.

Chillida urtea aukera paregabea dugu artistak bere lanen bidez esan nahi diguna entzuteko, oso gaurkoak diren gaiak aipatuz gainera eta erabat modernoa den hizkeran. “Eman ta zabal zazu” da hemen gauden guztion urte honetarako konpromezua. Eduardok egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen ikurra. Zuhaitza egin zuen, berak hainbeste maite zuen arbola. Fruitua eman eta zabaltzeko, sustraiak hemen eta besoak mundura zabalduta. Primerako aukera izango dugu denok, egunero haizea orraztuz jarraitzen duen eta Ortzimugatik begira daukagun Eduardo Chillidaren legatua “eman eta zabaltzeko”.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, Hernaniko alkatea

Eduardo Chillidaren jaiotzaren 100. urteurrena beteko da 2024an. Data berezi horren harira, Hernaniko Udalak, Chillida Leku Museoarekin elkarlanean, Udako Solstiziorako ekitaldi bereziaren antolaketan lagunduko du eta ekitaldia babestuko (2024ko ekainaren 21ean).

Udako Solstizio jai berezia izango da 2024koa. Jon Maya koreografoak zuzenduko du sormen prozesua, baina Hernaniko sortzaile eta eragileek parte-hartze berezia izatea sustatu nahi da. Horretarako, herriko artista eta eragileekin zubilana egingo du Hernaniko Udalak.

Horrez gain, duela hiru urte hasitako lankidetzari eutsiko dio Hernaniko Udalak, Chillida Leku Museoarekin duen hitzarmenaren bidez. Hitzarmen honen bidez, diruz laguntzen du Hernaniko Udalak Chillida Leku museoa Hernaniko herritarrengana hurbiltzeko helburuarekin.

Besteak beste, hitzarmen honi esker herriko ikastetxeetako ikasleentzako ibilbideak eta bisita gidatuak egiten dituzte; Museoen Eguneko sarrera bideratzen da eta hernaniarrek ekitaldi batzuetan beherapena izaten dute.

Era berean, hitzarmen honi esker Hernaniko Udalak urtean zehar Chillida Lekun ekitaldiak antolatzeko aukera izaten du (2024koak zehazteko daude oraindik), beti ere tokiko sortzaileak sustatzeari lehentasuna emanez.

Urteurrenaren harira sortuko den Patronatuko kide ere izango da Hernaniko Udala.

Chillida 100 urte, Burdinaren lurraldea

Eric Galvez, Legazpiko alkatea

60ko hamarkadan Chillida Paristik itzuli zenean bere bide artistikoaren bila, errementari baten ondoan zegoen etxe batean jarri zen bizitzen. Handik zetozen hotsek arreta deitu zioten, eta egun batean barrura sartzea erabaki zuen. Illarramendi errementariaren eskutik ikasi zuen lanbidea eta urtebeteren buruan tailer bat erostea erabaki zuen.

Chillida GAUR talde artistikora batu eta Oteiza zein Basterretxearekin batera Arantzazuko Santutegiaren (Oñati) proiektuan partaide izan zen. Basilikako ateak egiteko arduraduna zen, baina ez zuen ateak ixtea lortzen, harik eta Patricio Echevarriak, Euskal Herriko siderurgia-enpresa garrantzitsuenetako baten jabeak, kasualitatez handik paseatzen ari zenak, mailua hartu, ateari kolpe bat eman eta honek erreakzionatu zuen arte.

Perfekzioaren bila, Patriciok ateak bere fabrikara eramatea eskaini zion. Pabiloi bat prestatu zuen piezak egin ahal izateko, baina, horrez gain, talde bat osatu zuen hamar langile onenekin, eta 25 tona altzairu oparitu zizkion bere ametsa gauzatu ahal izateko: Haizearen Orrazia.

Fabrikan Chillida beste langile bat gehiago izan zen, piezak muntatzen ikasi zuen eta altzairu bereziak eratu zituzten eskulturak egiteko: RE-CO (korrosioarekiko erresistentea). Han, Chillidak eskulturak zintzilikatzeko teknika ikasi zuen, gero beste lan askotan erabiliko zuena, Lugar de encuentros IV eskulturan esaterako, eta askoz amets gehiago sortu ziren bertan, hala nola Toki-egin (Reina Sofía Museo Nazionale), Música callada (Dallas) edo Puerta de la Libertad (Liechtestein).

Harreman horren ondorioz sortu zen Chillidaren eta Legazpiren arteko lotura, eta 1997an LENBUR Fundazioa sortu zenean artistak ez zuen zalantzarik eduki fundatzaileetako bat izateko. Lankidetzak aurrera jarraitu zuen, eta 2010ean Chillida Lantoki sortu zen, paper-fabrika handi bat, eskultorearen ekoizpen-prozesua erakusteko bihurtua. Bertan, bere tailerreko jatorrizko elementuak erakusten dira, eta Chillidak bere sutegitik forja handira eta tailerretik fabrikara igarotzea ekarri zuen aldaketa ikus dezakegu.

Horregatik, bere garaian izan zenagatik eta gaur egun denagatik, Legazpiko Udalak eta LENBUR Fundazioak bat egiten dute Chillidaren urteurrenaren ospakizunarekin, Legazpiko herria eta legazpiarrak harro baigaude bere historiaren zati baten partaide izateagatik.



EDUARDO CHILLIDA BARTZELONAKO MURAL G-333 INAUGURAZIO
EKITALDIAN, MACBA, BARTZELONA. 1998. ARGAZKIA: EDUARDO
CHILLIDA ARTXIBOA

EDUARDO CHILLIDA.

Ohar biografikoa.



EDUARDO CHILLIDA "GURE AITAREN ETXEA" ESKULTURAREN ERAIKUNTZAN. 1986. ARGAZKIA: JESUS URIARTE

Eduardo Chillida (Donostia / San Sebastián 1924 – 2002)

Eduardo Chillida Donostian jaio zen, 1924ko urtarrilaren 10ean, artearekiko sentsibiltate berezia zuen familia batean. Haurtzaroa itsasotik gertu igaro zuen, Donostiako badian, eta horrek paisaiarekin eta espazioarekin zuen harremana markatu zion. Oso txikia zenetik itsasoa harro zegoen egunetan olatuak nola lehertzen ziren ikustera joaten zen hondartza amaitzen zen tokira, alegia, gerora Haizearen orrazia jarri zuen tokira.

Chillida autodidakta izan zen. Hezkuntza arautuari uko egin zion, eta barne-dei bati jarraituz prestatu zen; egarri horrek ezaguna ez zen horretara gerturatu zuen: «Oso

interesgarria da ezaguna ez den horretan muturra sartzea». Inguruko munduarekiko jakin-min handia zuen, eta jakin-min horrek eraman zuen artera.

1943an arkitektura-ikasketak prestatzen hasi zen, baina utzi egin zituen. 1947an, Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan sartu zen, marrazten ikasteko. Hala ere, artistak, lan artistikora gerturatzeko zuen moduan, beti izan zituen gogoan arkitekturaren oinarrizko printzipioak. Horregatik, «hutsaren arkitekto» deitzen zion bere buruari, Chillida espazio-eraikitzaile bat zen.

Arte Ederren Zirkuluan, gainera, ezkerrezko eskuaz marrazten hasi zen, eskua garuna baino azkarragoa ez izateko eta kontrolatu ahal izateko.

Aldi berean, gaztaroan Realeko atezaina izan zen; 19 urterekin hasi zen bere hiriko taldean jokatzeko. Zaleek «katua» izena jarri zioten, baloiaren bila bizkor salto egiten zuelako. Baina futbola utzi behar izan zuen, belauneko lesio baten erruz. Hala ere, atezainak baloia gelditzeko behar dituen ezaugarriak eskulturara eraman zituen, hots, espazioa eta denbora kontrolatzeko gaitasuna.




EDUARDO CHILLIDA FORJAN LANEAN. 1951

Beka bati esker, 1948an, Eduardo Chillida Parisera aldatu zen, eta han egin zituen igeltsuzko lehen eskulturak. Urte haiek funtsezkoak izan ziren artistarentzat. Ikasteko eta esperimentatzeko urteak izan ziren, eta Liburutegi Nazionalera, museoetara eta galerietara -Louvre museora, esaterako- egiten zituen bisitaldiek markatu zituzten urteok, baita zenbait bizipen nagusik ere, hala nola Constantin Brancusi eskultore errumaniarraren lantegira egindako bisitaldiak. Topaketa hori, adibidez, funtsezkoa izan zen, eta eragina izan zuen materiarekin izan zuen harremanean.

Garai hartako obrak, funtsean, figuratiboak ziren. Bolumenak definitzen zituen, eta Louvreko estatua greko arkaikoen eragina zuten. Chillidak goiz jaso zuen kritikaren aintzatespena, eta 1949an bere obra ikusgai jarri zuen Salon de Mai aretoan. Urtebete geroago, lehenengoz erakutsi zituen lanak Maeght galerian, gorabidean ziren artistei buruzko erakusketa kolektibo batean.

1951n krisialdi artistiko bat izan zuen eta, horren ondorioz, Frantziako hiriburua utzi, eta jaioterrira itzuli behar izan zuen. Bertan, berriz egin zuen topo bere erroekin, eta burdina aurkitu zuen. Sorterrira itzultzearekin batera, espazioarekiko -bere eskulturetako protagonista- harremana hasi zen, baina bere hizkuntza propioak markatutako obraren sorrera ere izan zen. Chillidak Hernaniko sutegi batean ilarik bere lehen eskultura abstraktua sortu zuen. Obra hori lotuta dago hilarrien tokiko tradizioarekin.



EDUARDO CHILLIDA MAEGHT GALERIAKO ERAKUSKETAN. 1964.
ARGAZKIA: EDUARDO CHILLIDA ARTXIBOA

1954an, Madrilgo Clan galeriak haren lehen erakusketa indibiduala hartu zuen, eta urte hartan bertan parte hartu zuen lehenengoz obra publikoan: Arantzazuko basilikako ateak egin zituen. Denborarekin, espazio publikorako obrak berebiziko garrantzia hartu zuen. Chillidaren obra publikoek espazioari, eskalari eta arkitekturari buruz zituen kezka biltzen dituzte, eta zenbait balio unibertsal ukitzen, hala nola bakea, tolerantzia, askatasuna eta senidetasuna. Chillidak 40 eskultura publiko baino gehiago egin ditu, zeinak mundu osoko hirietan sakabanatuta dauden, besteak beste, Bartzelonan, Dallasen, Grenoblen, Frankfurten, Berlinen eta Washingtonen. Haizearen orrazia (1976) bere herriaren omenez sortu zuen artistak. Donostian dago, itsasoaren parean, eta elementuei desafio egiten die. 1990ean, Elogio del horizonte (Zeruertzaren laudoriotan) instalatu zen, Gijónen: hamar metro garai den hormigoizko egitura kolosal bat, «zeruertz atzemanezina» begiztatzeko egitura.

Bestalde, Eduardo Chillida oso goiz hasi zen bere lanagatik aintzatespenak jasotzen. 1958an, Graham Foundation Award saria eman zioten, Chicagon, bai eta Veneziako Bienaleko Eskulturaren Nazioarteko Sari Nagusia ere. Aintzatespen horiek irekitasun ekarri zuten zentzu guztietan. Handik aurrera, sariak etengabeak izan ziren: Kandinski saria 1960an, Wilhelm Lehmbruck saria 1966an, Alemaniako Kaiserring saria 1985ean eta Japoniako Praemium Imperiale 1991n.

Gaur egun, haren obra mundu osoko museoetan eta bildumetan dago, eta haren lanaren 500 erakusketa indibidual baino gehiago egin dira hainbat herrialdetan, hala nola Alemanian, Estatu Batuetan, Erresuma Batuan, Japonian, Errusian eta Korean. 1966an haren lanaren lehen atzera begirako erakusketa antolatu zen Houstoneko Arte Ederren Museoan. Aurrerago, 1980an, New Yorkeko Guggenheim museoan egin zuen erakusketa, eta Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionalek haren atzera begirako erakusketa handiena hartu zuen 1998an.

2000. urteko irailean, Chillida Leku museoa ireki zen, Hernanin. Artistak leku hori hautatu zuen, bere obra naturarekin harremanetan gordetzeko, non pieza nagusia Zabalaga XVI. mendeko baserria baita.

Eduardo Chillida Donostian hil zen, 2002ko abuztuan, bere ametsa gauzatuta ikusi gabe: pertsona guztientzako espazio bat sortzea Fuerteventurako Tindaya mendiaren bihotzean, tolerantziaren omenezko monumentu handi bat.

EDUARDO CHILLIDA.

Kronologia.

- 1924 Eduardo Chillida Donostian jaio zen
- 1943 Arkitektura ikasten hasi zen
- 1947 Marrazten hasi zen Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan
- 1948 Parisera joan zen bizitzera; igeltsuzko lehen eskultura sortu zuen: Forma
- 1949 Erakusketa egin zuen Parisko Salon de Mai aretoan
- 1951 Euskal Herrira itzuli zen; burdinazko lehen eskultura sortu zuen: Ilarik
- 1954 Lehen erakusketa indibiduala egin zuen Madrilgo Clan galerian
- 1956 Parisko lehen erakusketa indibiduala egin zuen Maeght galerian
- 1958 Eskulturaren nazioarteko saria eman zion Veneziako Bienalak
- 1960 Kandinsky saria lortu zuen
- 1961 Egurrezko Abesti gogorra I eskultura egin zuen
- 1963 Greziara joan zen; argia interesatzen hasi zitzaion
- 1965 Alabastrozko lehen eskultura sortu zuen: Homenaje a Kandinsky (Kandinskyren omenez)
- 1966 Atzera begirako erakusketa Houstongo Arte Ederren Museoan
- 1968 Alrededor del vacío V [Hutsaren inguruan V] eskultura ipini zen Washingtonen
- 1971 Visiting professor izan zen Harvard Unibertsitatean
- 1972 Hormigoizko Lugar de encuentros III [Topaketa-lekua III] eskultura sortu zuen; Madrilgo Paseo de la Castellana pasealekuan ipini zen eskultura
- 1973 Txamota-lurra lantzen hasi zen; lehen Lurrak sortu zituen
- 1977 Donostian Peine del viento XV [Haizearen orrazia XV] ipini zen
- 1980 Atzera begirako erakusketa New Yorkeko Guggenheim museoan
- 1983 Lehen Grabitazioak egin zituen paperean
- 1985 Hernaniko Zabalaga baserria erosi zuen
- 1990 Elogio del horizonte [Zeruertzaren laudorioa] instalatu zen Gijónen
- 1991 Praemium Imperiale jaso zuen Japonian
- 1994 Ohorezko kide izendatu zuten Madrilgo San Fernando Arte Ederretako Errege Akademian
- 1998 Atzera begirako erakusketa Madrilgo Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionalean
- 2000 Chillida Leku museoa ireki zen
- 2001 Parisko Arte Ederren Akademiako kide
- 2002 Abuztuaren 19an hil zen, Donostian

INFORMAZIO PRAKTIKOA



<https://bit.ly/dossier-chillida100>

Sakatu kontaktua.

Acerca Comunicación

Maider Olano

maider@acercacomunicacion.org

Tel. +34 911289771 | +34 648 773 373

Sustatzailea



HAUSER & WIRTH



Elkarlanean.



MUSEUM WÜRTH KÜNZELSAU

bilbao **museoa**
Arte Ederen Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

EUSKADIKO
ORKESTRA

a contracorriente | films



Komunikabideetako kideak



Sustatzailea



EDUARDO CHILLIDA
PILAR BELZUNCE
FUNDAZIOA



CHILLIDALEKU

HAUSER & WIRTH

Elkarlanean



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

